


Albisteak - "Trabeska", ibilbide bat basoan barrena, Gerard Ortínen artistarekin



Datorren igandean, urriak 18, Gerard Ortín artistak *Trabeska* proposamena egingo du Besaide inguruetan. Paisaia edo lurralde bezalako kontzeptuen inguruan hausnartzea da helburua.

Hiru lurralde historikoen mugan dagoen toki enblematikoaren inguruetan, artistak ibilbide bat basoan proposatuko du paisaiaren ideiarri buruz, mapek marraztutako mugei buruz eta natur guneeetako esperientzia fisikoari buruz hausnartzeko xedez.

Ekimen honekin abiatuko da [LaPublika](#). Bilboko [consonni](#) ekoiztetxe eta argitaletxeak zuzentzen du LaPublika proiektua, eta Donostia 2016k eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak ekoizten dute.

Gaur berton, urriak 15, 19:30ean, aurkeztuko da proiektua zuzeneko irratsaio batekin. Publikoa daukan irratsaio bat izango da, hitz egiteko, informazioa helarazteko eta edukiak sortzeko, zuzenean. Alicia San Juan irrati-esatariak gidatuko du *LaPublika* magazina, eta elkarrizketak egingo dizkie hainbat kolaboratzailei.

Consonni-k bidalita